

## **OSALDE-REN KOMUNIKATUA**

### **FARMAINDUSTRIA-K AKATS BAT EGIN DU, BERRIRO ERE**

Farmaindustriak bere produktu "izarrak", hau da, bere marka dutenak saltzeko erraztasunak ematea exijitu dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari, Gobernuaren osasun-politikan esku hartu eta irabaziak lortzen jarraitzeko helburuarekin, nahiz eta atzeraldi ekonomikoan egon. Eskakizun horrekin, Osakidetzako Ospitale, Anbulatorio eta Osasun-zentroetako medikuen aginte-ahalmena baldintzatu nahi du, ezbairik gabe. Osasun Sailburuak gogora arazi duenez, bera da Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-politiken arloan erantzukizuna duena.

Farmaindustriaren ausardia hori onartu ezinezko presioa dela deritzogu, Eusko Jaurlaritzari bide gabeko epea ezartzen baitio, dagozkion zuzenketak gauzatu ditzan. Osasun Sailak abiarazitako ildo horiek erabat egokiak eta justuak direla deritzogu, eta Konpromisoaren aldeko keinu horrekin herritar guztien alde egin du.

Gure ustez, aurrekoa bezalako erabakiak krisi ekonomikoaren eragina nabaritu aurretik hartu beharrekoak lirateke. Une honetan, zera da garrantzitsua: Osakidetzako langileek irizpide eta erantzukizun egokiarekin aurre egitea erronka berri horri.

Osaldek uneoro lagunduko du Osasun Sailburuaren jarrera, Farmaindustriari aurre egiteko orduan.

Bilbo, 2010eko ekainak 15